



Kale Nagusia 10 (KP 31820)
Tef. 948460004
udala@etxarriaranatz.eus
www.etxarriaranatz.eus

EDIKTUA

2018KO UDAL ZERGA TASAK

Kontuan hartuz Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 12., 64. eta 132. artikuluetan ezartzen diren aurreikuspenak, haien ondorioz udalek erabaki behar dituzte nahitaez ordainarazi beharreko zergei ezartzen zaizkien karga-tasen zenbatekoak. Legean finkaturiko mugen barranean, salbu eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, hala xedatzen baitu Foru Lege beraren 162. artikulua. Aintzat hartuz zerga bakoitzerako aipatutako legeak 139.2, 154, 170.2 eta 175.2 artikuluetan ezartzen dituen mugak, Etxarri Aranzatzko Udalak, honako erabaki hau hartu du, kontuan izanik Foru Lege horren 64. artikuluan ezarritakoa:

1.-2018ko ekitaldirako onestea ondotik ematen diren zerga tasak, nahitaez ordainarazi beharreko zergei dagozkienak.

1.1. Kontribuzioa: karga tasa: % 0,23

1.3. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: karga tasa: % 5. Zerga hobaria onartuko dituen ordenantza indarrean egon arte, zerga tasa % 4,07 izango da.

1.4. Gainbalioa: % 10,18:

-5 urtera arte: %2,2.

-10 urtera arte: %2,1.

-15 urtera arte: %2,0.

-20 urtera arte: %2,0.

1.5. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: Indizea: %1,4

2.-Erabaki honek 2018 urteko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

3.-Erabaki hau toki entitate honen iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Etxarri Aranzatzeko 2017ko abenduaren 2an
Alkatesa/La Alcaldesa: Eneka Maiz Ulaier

